


FUNTSEZKO JARDUERAK

Garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen zereginak identifikatzea, kanpoko enpresen esku ez uzteko eta horrela, arriskuak murrizteko.

Beraz, ezagutzarekin, negozioaren know how delakoarekin, lotutako guztia ezin da besteen esku utzi. Beste enpresa batzuen esku utz daitezkeen jarduerak Enpresak balio erantsirik ematen ez badio, kanpoko enpresa baten esku utzi daitezke jarduerak.

Kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen jarduerak Gure enpresaren muina osatzen dutenak babestu egin behar ditugu, daukagun aktiborik garrantzitsuena direlako.



Enpresak duen jarduera funtsezkoena produktuaren diseinu eta ekoizpena izango da, baina internet bidezko nahiz aurrez aurreko salmentak ere gure gain hartzeko asmoa dugu

Beraz, beste enpresen esku utziko ditugun jarduerak beharrezko zaizkigun lehengaien ekoizpena eta salgaien banaketa izango dira.

Hau da, guk lehengaiak erosi, haiek eraldatu eta produktu bukatu bat edukiko dugu. Eta hau merkatuan saltzeaz ere gu arduratuko gera.

Bezeroek erositakoan ordea, ez gera gu izango banatuko duguna, banaketetara dedikatzen den beste enpresa bat baizik. Hau izango da gure epe luzeko helburua. Hala ere, azken jarduera hau ere gure gain hartu behar izango dugu hasiera batean, goian aipatu bezala.